

INDUSTRIA El indicador sobre la producción manufacturera apunta a que la industria europea entra en recesión >18 Y EDITORIAL

Johnson hereda el cargo de May y esquivaba las elecciones

Asegura ante Downing Street que Reino Unido abandonará la UE «con un nuevo acuerdo», declaración rechazada por Bruselas, que insiste en no renegociar la salida. El artífice de la campaña del Brexit será su asesor

En sus primeras declaraciones como primer ministro frente al número 10 de Downing Street, Boris Johnson subrayó que no solo habrá Brexit el 31 de octubre, sino que saldrán «con un

nuevo acuerdo, un acuerdo mejor que permita al país maximizar sus oportunidades». Manifestaciones inmediatamente rechazadas por la Comisión Europea al reiterar que no renego-

ciará el acuerdo de salida. Uno de los primeros encargos del nuevo premier es formar Gobierno tras las dimisiones. Nombró asesor al polémico Dominic Cummings. >14

PSOE y UP se encallan a horas del nuevo ensayo de investidura

Con la reunión de las delegaciones negociadoras suspendida a mediodía sin acuerdo, PSOE y Unidas Podemos protagonizaban un cruce de mensajes a horas de la segunda votación de investidura del candidato Sánchez. >2-3

GRÁFICOS DEL CIS

Dónde queda la centralidad

«Operación Jaro», el montaje contra Causa Galiza se desinfla

Cuatro años después, sin veto a su actividad y sin acusación de «pertenencia terrorista», queda en evidencia el montaje contra Causa Galiza para atacar su proyecto político. >4-5

[•] ANÁLISIS

C.RODRÍGUEZ, A.SANTOS, J.PÉRES

Abriendo camino en la encrucijada

ERREPORTAJEA IBAI AZPARREN

Zalduako termak, erromatar kulturaren nortasunaren isla

Aranzadi Zientzia Elkarteko eta Museum of London Archaeology museoko arkeologo eta boluntarioek Auritz eta Aurizperri artean dagoen Zalduako herri-gune erromatarraren erdigunean kokatutako eraikina induskatzen jarraitu dute, eta terma funtzioa betetzen zuela berretsi dute. Harri batean grabatu antropomorfoa ere aurkitu dute. >6-7



**JUAN DE DIEGO
TROMPETISTA**

«Al llegar a Barcelona, todo eran bolos; ahora hay que dar clases» >32-33

BAIONA TIENE YA LAS LLAVES DE LA FIESTA



Texto: M. UBIRIA- H. LARRAÑAGA Fotografía: Guillaume FAUVEAU

Baiona ya está inmersa en la fiesta. Poco después de las 22.00 horas, y tras el saludo en euskara en occitano, las tres llaves lanzadas por representantes del Aviron Bayonnais de rugby desde el balcón consistorial abrieron ayer oficialmente el programa festivo ante una abarrotada Plaza de la Libertad vestida en rojo y blanco. >38-40

EGUNEKO GAIAK

EG3

ZALDUAKO ERROMATAR KOKAGUNEKO TERMAK

Aurtengo kanpainan, Zalduako herrigune erromatarraren erdigunean kokatutako eraikina induskatzen jarraitu dute Aranzadi Zientzia Elkarteko eta Museum of London Archa-

elogy (MOLA) museoko arkeologo eta boluntarioek. 370 urtean zehar birmoldaketa eta fase ugari jasan zituen eraikuntzak terma funtzioa betetzen zuela berretsi dute.

Zalduako termak, erromatar kulturaren nortasunaren ispilu

Ibai AZPARREN | IRUÑEA

2012. urtean, Juan Mari Martinez Txoperena zaharberritzaile eta Aranzadiko kideak Mugarri-luzen miliario bat aurkitu zuen, Astorga eta Bordele lotzen zituen galtzada erromatarraren ondoan. Txoperenak Ptolomeo historialariaren idatzietan eta Antoninoren ibilbidean aipatzen zen hiri baskoia bere herri-tik gertu kokatzen zelako susmoa zuen, eta, hala, nekropoli baten aztarnak aurkitu zituen Otegin, hirien sarreran eraiki ohi ziren horietako bat.

Aurkikuntza horrek sendotu egin zuen kokagunea Auritz eta Aurizperri artean dagoen Zal-

duako belardian zegoelako ustea. Egile erromatarrek «Summum Pirineum» eta «Iturissa» egonlekuak aipatzen dituzte baskoien lurralde horietan, baina ebidentzia arkeologikoak eta idatziak aski ez direnez, oraindik ez dute frogatu aurkitutako aztarnategia hiri horietako bat denik. Halere, mendeetan lurperatuta egon den egonleku erromatarra karakterizatzen saiatu zen Aranzadi Elkartea MOLako arkeologoekin elkarlanean, Nafarroako Gobernuaren, Aurizko Udalaren eta Eusko Kultur Fundazioaren babesarekin.

Horren harira, teknika geofisiko bitartez, aztarnategiaren mapa egin, eta 4,5 hektareako

azalera duela ikusi zuten. «Ez dakigu dena aldi berean okupatuta egon zen, baina eraikin guztiek azalera hori hartzen dute», azaldu du Ekhine Garciak, proiektuko zuzendarietako batetik. 2014tik aurrera, esparru ezberdinak induskatu zituzten, galtzada eta honen alde batera zein bestera zeuden eraikinak, batez ere. 2017an harrizko eraikin baten arrastoak topatu zituzten eta aurkikuntza esanguratsua izan zitekeela nabarmendu zuten. Hainbat hipotesi garatu zituzten.

Aste hauetako lanek aurrera egin aurrera, hipotesi nagusia berretsi zuten, hau da, 600 m² dituen eraikinak terma edo bai-

nuetxe publiko funtzioa izango zuela. Izan ere, ura eta gelak berotzeko erromatarrek erabiltzen zuten *hypocaustum* sistemaren aztarnak topatu dituzte. Zorua-zen azpitik eta pareten artetik beroa zabaltzeko sistema da. «I. mendetik IV. mende erdialdera bitarteko materialak aurkitu ditugu; 370 urte horietan zehar eraikinak eraldaketa ugari izan ditu», argitu du Oihane Mendizabalek, proiektuko beste zuzendari eta Aranzadiko kideak. Zehazki ez dakite urte horietan guztietan termak izan ziren, baina bai fase batean berokuntza sistema hori izan zutela.

Hiru astetan zehar eta beste urteetan bezala, Euskal Herri-tik

«ITURISSA»

Aztarnategia «Iter XXXIV» galtzadaren Pirinioetako igarobidean dago. Astorga eta Bordele lotzen zituen galtzada horrek, eta egile klasiko erromatarrek «Summun Pirineum» eta «Iturissa» aipatzen dituzte baskoien lurralde horretan.

ZABALERA

Teknika geofisikoak erabiliz, aztarnategiaren mapa egin, eta 4,5 hektareako azalera zuela berretsi zuten. Termek, aldiz, 600 m²-ko azalera dute.

COST ACTION

Hurrengo astean, COST proiektuaren eskutik, Europako herrialde ezberdinetatik hainbat irakasle eta ikasle Zalduara joango dira, geofisika arkeologikoaren eta lurzorua-aren osaeraren arteko harremanak lantzeko helburuarekin.



Aranzadiko kideak indusketa lanak egiten, Zalduako aztarnategian aurkitutako termetan.

Jagoba MANTEROLA | FOKU



Argazkiaren ezkerrean, Zalduan aurkitutako irudi antropomorfoa, han azaldutako beste material batzuekin batera.

Jagoba MANTEROLA | FOKU

eta beste hainbat herrialdeetatik etorritako hamalau boluntario-ren laguntza izan dute; arkeologia ikasleak dira batzuk, eta beste batzuk, aldiz, jakin-mina duten herritar soilak, hala nola Aurizperritik eta Auritzetik etorritako bi lagunak.

Grabatu antropomorfoa

Hiri erdigunean kokatua legokeen bainuetxea erromatar kultu-

raren nortasunaren parte zen, hauek zuten funtzio sozial eta politikoagatik, alegia. Horrez gain, eraikinean garaiko bizimoduaren berri ematen duten materialak ere aurkitu dituzte. Horien artean, zeramikazko aztarnak, leihoak osatzeko beira zatiak edota hezurrezko orratzak nabarmendu behar dira, emakumeek ilea mototsean biltzeko erabiltzen zituztenak.

Txanponak ere aurkitu dituzte, I., II eta III. mendeetakoak, lurrraren azidotasunagatik nahiko hondatuak. Halere, batzuk hobeto kontserbatu dira eta oso baliagarriak dira, Mendizabalen hitzetan, «kronologiak zehazteko»: Augustoren aurpegia agertzen da batean, lehen enperadore erromatarrarena, alegia.

Baina aurtan aurkikuntza berezia egin dute, lurrraren kontra

HARRI BEREZIA

Aurtan aurkikuntza berezia egin dute, lurrraren kontra zegoen harri baten aurpegian irudi edo grabatu antropomorfoa agertu baita, grabatutako bi hizkiekin. Adituek pieza hori nahiko berezia dela zehazten dute, Nafarroa mailan halako irudiak ez direlako ohikoak.

zegoen harri baten aurpegian irudi edo grabatu antropomorfoa aurkitu baitute, azpian hiru hizki dituelarik: T, E eta oraindik interpretatu ezin izan duten beste hizki bat.

Adituei galdetuz pieza hori nahiko berezia dela ohartu direla azaldu du Mendizabalek: «Nafarroa mailan, itxura antropomorfoko irudiak ez dira batere ohikoak, hatzarekin zenbatu daitezke». Halere, harria sakon aztertu behar dute eta esanahia eman, baina Zalduko parajearen kokatutako aztarnategia induskatu ahala, pieza eta aztarna gero eta esanguratsuagoak agertzen dira, hiru astez iragana erreskatatzen ari diren boluntario eta zuzendari hauei esker.



El servicio meteorológico más completo en NAIZ

- 15 días de previsión, por horas.
- Puedes consultar todos los lugares de Euskal Herria, sus alrededores y resto del mundo.
- Temperaturas
- Fases lunares, mareas y mucho más.

entra en:
www.naiz.eus/eguraldia

